

Kornotz

Erromatar jatorrizko lekuizena

Juan SAN MARTIN

Harrigarria iruditzen zitzaidan Jaizkibel mendiaren izena, bere etimologiaz haitzaren atzekaldea izanik, mendiaren bi aldeetan, hondarribarren zein lezoar edo pasalarrek ere berdín erabiltzea. Horregatik hasi nintzen Jaizkibel mendiaren itsashegalak ikertzen, bai toki izenez eta baita arkeologiaz ere. Tokizenei buruzkoa bildurik argitara eman nuen Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian¹ eta arkeologia-koak "Luis de Uranzu" Kultur Taldearen Aldizkarian eta arkeologia-koak "Luis de Uranzu" Kultur Taldearen Aldizkarian.² Orduan konturatu nintzen haitz-gibela itsasaldeko hegala zela.

Adiskide nuen koldo Mitxelena hizkuntzalari ospetsuari horren berri eman nionean, hark ere harriturik jaso zuen Kornoz (= Kornotz) eta ez zuen inolako zalantzarik lekuizen hori erromarrendikakoa genuela; baina, batez ere, harritzen zuena zen orain arte nola inor ez zen horretaz ohartu.

Ahoz jaso nituenen artean, Kornuz eta Gornuz bezala erabiltzen zen baserri izena izan zen, eta Hondarribiako Udalaren artxibategian aurkitu nituen Erdi Aroko bi pertsona, 1481. urtekoak, Cornoz deitu-

(1) SAN MARTIN, J.: "Jaizkibel mendiko izen zahar batzuk", *Euskera*, XXXIII, 1988, 261-271 or.

(2) "Aralardik Jaizkibelera, lehen gizonen urratsak", *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria*, 16. zenbakia, 1998, 45-59 or. Eta "Páleo-litos garal-ko aztarnak Hondarribian", aldizkari beraren 19. zenbakian, 1999, 115-124 or.

ra zutenak.³ Baina, zerbait lehenagoko baten berri zekarten M. Larrañaga eta I. Tapiak Hondarribiako agiri zaharren bilketa liburuan, Corno jarriaz.⁴ Hura irakurtzeak zerbait harriturik utzi ninduen eta, Beña Andrés artxibategiko arduradunaren laguntzaz, blok begratu genuen agiria, non garbi asko irakur zitekeen Cornoz.

Baina gure grafiaz Kornotz beharrezkoa noski, zeren bertakoek horrela ahoskatzen dutelako, gaur egun Kornutz erabiliaz. Latin hizkuntzatikako *cornu* (=adar) du sustraitzat -otz atzizkiarekin. Antzina-koek ez zekiten -otz afrikatu hori nola idatzi, ez gaztelaraz eta ez frantsesez ere, beraien ahoskeretan ez dutelako, eta horregatik -oz soilik jarri izan zuten hemengo euskaldunek ere hortik jarraitu zuten idatzirako -oz, beraien ahoetan -otz erabili arren.

Nik aztertu ditudan idazkietan, Kornotz etxea eralki baino lehenako, Artsuko Matxinen 1280. urteko berriak ematean agertzen da Cornuz bezala lehen aldiz.⁵ Baina badirudi izena ez dela garai bereko agrietatik zuzen jaso, baizik Diego de Urbina Erregeren heraldika armen arduradun zenak 1620an Cornuz ezkutua osatzeko eman zuen agiritik baizik.

Isastik inguru halek tokiz-toki kokatzean zioen: "Fuera de la villa en su jurisdicción en los cotos de Cornuz y Jaizubia son las casas parroquianas á ella Arsu A, Justiz A, Cornuz, por otro nombre Muguirio..."⁶ Eta Pierre-Henry de Lalanne-ek Arsu (Artsu) etxeari buruz ari zelarik beste honako hau zekarren: "La maison principale et primitive se dresse sur la montagne d' Oearso, aux confins de Cornuz".

(3) Archivo Municipal. Eef.: Sección C, Negociado 5, Serie 1, Lib 1, Exp. 2. Non agertzen dicen 148 lean Joanes de Corno eta Esteve de Corno.

(4) Miguel Larrañaga Zulueta eta Izaskun Tapia Rubio, *Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia*. Tomo 1 (1 186-1479). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 17 48 (Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1993), p. 97.

(5) CONDE DEL LLOBREGAT: *Noticias históricas* (segunda edición), San Sebastián, 1942, pp 91-92. Eta PORTU, Florentino: *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades hasta 1969*, Fuenterrabia, 1975, 223-224 or.

(6) LOPE DE ISASTI: *Compendio historial de Guipúzcoa* (Obra escrita en el año de 1625, impreso en San Sebastián en 1850), p. 91.

Eta D. de Urbina-ren agiria dakar liburuaren azken partean, non jasotzen den: "Término llamado Cornuz a la falda Oriental del promontorio Olearso".⁷ Beraz, Jaizkibelen Ekialdeko lurraldea zen Kornotz, bertan alpaturiko etxeok eraiki baino lehenagotik. Eta, Jaizkibel bera, Erdi Aroan Jaizkidel bezala agertzen zena, erromatar geografoek alpatzen zuten hura omen. Adibidez, X. Plinio-k "promontorio Olearso"; baina P. Mela-k Oeason eta Strábon-ek Oláson.⁸

Izena eta izanaren azterketetan nenbillela, Pepita Aginaga Irondar adiskidak eskuratu zidan <cornuz-en> altonsemetzako esku-izkribuzko agiria, 1658. urtekoa, eta zenbait oharrekin argitara eman nuen Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Buletinean.⁹

Kornotz izenari Euskal Herrian bertan, ez zailo falta kidekorik. Antzina, Cornonium zeritzan hiri bat ba omen zen Nafarroan, Ptolomeok Euskaldunon lurrandean kokatzen zuena. J. Caro Barojarentzat, zalantzarria bazeritzan ere, Jaca aldetik mendebaldera eta "Graccuris"en iparraldean koka zezakeen.¹⁰ Eta M. J. Pérez Agorrearentzat, Erdi Aroan Mendabiaren iparraldean zen Cornio izan zitekeen.¹¹

Bestalde, oroi eta kontutan har, Cornúquiz Bizkalko toki-izen bat zela 1070. urteko agirietan agertzen denez, Lope Iñiguez kondeak San Milla-era eramana, halan jasotzen zuen L. Serranok.¹² Baina bada Gipuzkoan bertan ere zer ikusirik duen leku izena, Aloña men-

(7) LALANNE, Pierre-Henry de: Fontarabie. Ses monuments, son histoire, Paris, 1896, p. 52 y p. 218.

(8) GARCIA Y BELLIDO, Antonio: *España y los españoles hace dos mil años, según la Geografía de Strábon* Colección Austral, Madrid, 1947, pp. 38, 135 y 140.

(9) SAN MARTIN, J.: "Cornuz, notas sobre término y nobleza", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Vol. XLIV, 1988, pp. 525-532.

(10) CARO BAROLA, Julio: *Los vascones y sus vecinos*, San Sebastián, 1985, pp. 41 y 47.

(11) PEREZ AGORRETA, María Jesús: *Los Vascones. El Doblamiento en época romana*, Pamplona, 1986, p. 147 y lám. XIII en la p. 47.

(12) SERRANO, Luciano: *Cartulario de Sn Millán de la Cogolla*, Centro de Estudios Históricos, Madrid, 1930, CXII, pp. 210-211.

ditik Aizkorri bitartean, bada tontor eta lepoa Blozkornia deitzen direnak, Katabera meategien gainekaldean.

Corno (= adar) hitzaren kontzeptua da kontutan hartu beharrezkoa, erromarrek mendi gallur eta itsasalderako lurraldeen puntel izen hori ematen ziotenez, zeren kontzeptu bezala oso zabaldua baita. Horren arabera, hor ditugu: Urnieta eta Andoain tartean Adarra mendia; Bizkaian Gorbearen iparraldeko Itxina harkaltzetan Atxadarra; Baxenabarrako Banka herriaren Ekialdean ere bada Adartza mendia. Edo, Alpes mendietan, alemanierazko hizkuntzaz izenak lekuko harturik, nonahi aurkitu genitzake -hom (=adar) daramatenak, adibidez: Bietschhom, Breithom, Finsteraarhom, Matterhom, Ritzihom, Schereckhhom, Weissshom, Weterthom eta abar. Baina itsasaldera irteten diren puntetan oso ezaguna zaigu geografian "Cuerno de Africa" deritzana; horregatik, pentsatzekoa da Jaizkibel gallurretik itsasalderako guztia izango zela komotz, eta gogoan har itsasalde horretara irtetzen den punta bera ez dela Higer, baizik Amuitz.

Olearso zen aldeko Bidasoaren behekaldean egin diren erromatar aurkikuntzak ezaguturik ez gaitu harritu behar Comotz (=Komotz) leku izena hor izateak. Nik neuk Hondarribian bertan aurkitu nuen "ara" erromatarren berri eman nuen Eusko Ikaskuntzak J. Caro Barojaren omenez argitaratu zuen lan hartan.¹³

Baina Hondarribian bertan, lehendikako hainbeste aurkikuntzaren aztarnak hor ditugu lekuko; horregatik ez da harrigarria inguru berean Comotz (=Komotz) leku izena aurkitzea.

Euskal Herriko itsas-hegaleko erromatarren aurkikuntzel buruz, hor dugu, bilduma orokorrez, Milagros Esteban Delgadok argitaratu zuen *El País Vasco atlántico en época romana Iburua*.¹⁴ Zalantzarik gabe, lan ona burutu zuen. Baina, lehenik kontutan hartzekoak ditugu M. Martín-Bueno eta J. Rodríguez Salís ikertzailleen "The anchorage of el Cabo de Higer, Fuenterrabía"¹⁵ alde batetik eta "El Jaizki-

(13) SAN MARTIN, J.: "Ara romana en Hondarribia", *Julio Caro Barojari Omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1986, *RIEV*, Vol. 1, pp. 481-486.

(14) ESTEBAN DELGADO, Milagros: *El País Vasco atlántico en época romana*, Mundaiz, San Sebastián, 1990.

(15) MARTIN BUENO, M. eta RODRIGUEZ SALIS, J.: "The anchorage of el Cabo de Higer, Fuenterrabía". *Nautical Archaeology*, 4, London-New York, 1975.

bel y el Promontorio Olasso a propósito de un nuevo hallazgo numismática romano"¹⁶ bestetik, beralek zuzenean egin zituzten ikerketa lanak azalduz. Lan hauel gaineratu zizkion Martin-Buenok Bidasoaren Itsasalderako irteeran aurkitu ziren keramiken berriak.¹⁷ Eta horiel buruz A. M. Benito eta R. Emparanek egin zuten ikerlana.¹⁸

Jaizkibel gallurrean aurkituriko erromatarren diruak eta Bidasoaren ahoan keramikak, ez dut esan beharrik Erroma aldetik ekarriak zirela, ez hemen bertan eginak. Eta, horiek ez ezik, Irun eta Errenterian eginiko aurkikuntzak ere kontutan harturik, ulerkaitz zait M. Esteban Delgadok bere liburuaren 406. orrialdean Hondarribian aurkitu nuen ara erromatarrari buruz dioena: beste aurkikuntzokin ezer ikusirik ez duela bere ustez, denbora modemoetan ekarria izango dela azalduz.

Nire lanean adierazten nuenaren arabera, ordea, ez deritzat denbora modernoetan berriki ekarria, bai ordea inguruan diren antzinako beste aurkikuntzei lotu beharrekoa.

Alde batetik, Lapurdiko Getarian, J.L. Tobie irakasleak ikertu zuen harria hor da.¹⁹ Azparneko hilarrian aurkitua ere bai, P. Charritonek bere lan batean agertzen duena.²⁰ Eta horiek ere ez daude gure inguruko tokietako harriarekin eginak.

Baina, bada besterik ere: Zuberoko Atharratzetik laster, Aranhe gallurrean bada Maria-Maldalenaren kapera, non aurkitzen den III.

(16) J. Rodríguez Salis eta M. Martín-Buenoren "El Jaizkibel y el Promontorio Olasso a propósito de un nuevo hallazgo numismática romano", *Munibe*, 33, Donostia, 1981, pp. 195-196.. *Nautical Archaeology*, 4, London-New York, 1975.

(17) MARTÍN-BUENO: "Hallazgos cerámicos submarinos en Fuenterrabía", *Sautuola*, 11 (1976-1977).

(18) BENITO, A.M., EMPARAN, R.: "Anforas del yacimiento submarino del Cabo de Higuer, Fuenterrabía", *Colloqui "El vi en la antiquitat"*, Badalona, 1987, pp. 74-84.

(19) TOBIE, J.L.: "Découverte d'une épitaphe de début de l'Empire Romain..." *Bulletin du Musée Basque*, Bayonne, 1989, pp. 89-102.

(20) CHARRITTON, Pierre: *Brussain sa contribution aux études basques*, Paris, 1985, p. 48.

mendeko ara eromatarra Hondarribikoa bezalako harriz egina. Zenbaiten ustez Venus Jainkosaren ageri edo aztarna da, bertan latinez iraririk dauden hitzetariko bat "Heravscorritsehe" dioena, euskal jatorrizkotzat jotzen dena. Horretaz idatzi nuen artikulu bat.²¹

Bordeletik hurbil den Saintes hiriko erromatar aztarnen artean aurkitzen dira Hondarribiako eta Aranhekoaren antzeko zenbait ara. Beraz, zeren zalantza izan behar dugu Hondarribiako ara antzinatik bertan kokatua ez izateko? Jaizkibel gailurrean aurkitutako diruak eta Bidasoaren itsasaldeko ahoan, Amuitz puntaren aurrekaldeko urpean aurkituriko hainbeste keramikazko anfora zatiak ere ez baitziren hemen eginak, erromatarrek ekarriak baizik. Eta Aranhe zein Sainteskoak ere, ez dira bertako harriz, ezta bertan, eginak ere.

"Ara romana en Hondarribia" idazterakoan ez nintzen ausartu lehen edo bigarren mendekoa izango zen azaltzen. Uste hori bainuen A. García y Bellidoren katalogazioan oinarriturik.²² Lana argitaratu geroztik, Florenziako museoan dauden arak ikustean, hango batek zeraman Hondarribian aurkituaren apaingura berdina eta nire usteak zuzen zebiltzan.

Dena dela, aldare-harri den ara beraren ondoan, gauzarik bitxienetakoa iruditzen zait Kornotz (Cornoz) leku izena, antzinatik belaunik belau eta ahoz-aho gure egunotara arte iraun duenez.

(21) SAN MARTIN, J.: "Barkoxeko altxorra eta "Heravscorritsehe" oroitarria", Bilboko *El Correo* egunkariaren *El Correo Escolar* Asterokoan, 1986ko azaroaren 6an.

(22) GARCIA Y BELLIDO, A.: *Arte romano*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Segunda edición, Madrid, 1972.